

XIX.
FRANCISCO
JAVIER LANDABURU
PRIMUS
MARRAZKI
SARIA



2025eko SARIAREN OINARRIAK

DEIALDIA EGITEN DUENA:

EuroBasque, Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua

LAGUNTZAILEA:

Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila

ARGIBIDEAK:

Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila

Telefonoa: 945 016 556

Helbide elektronikoa: huisppro@euskadi.eus

EuroBasque, Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua

Telefonoa: 945 123 538

Helbide elektronikoa: sariak@eurobasque.eus

*¡Ospatu dezagun
Europaren Eguna,
maiatzak 9!*

Galderari erantzungo dion marrazki bat egitea:

Zer da Europa zuretzat?



Lanak aurkezteko epearen amaiera.
2025eko maiatzaren 20a



XIX. FRANCISCO JAVIER LANDABURU MARRAZKI SARIA PRIMUS 2025 · OINARRIAK



¡Ospatu dezagun Europaren Eguna, maiatzak 9!

1. Deskribapena

EuroBasqueren helburu nagusia da bere baitan dauden herrien aniztasuna errespetatzen duen Europar Batasun federala sortzea, eta Europako herrien, nazionalitateen eta eskualdeen arteko harremanak sustatzea eta Euskadin sakontzea, aipatutako europar batasunari begira. Europako nortasuna Lehen Hezkuntzako ikasleen artean sustatzeko lana indartzeko, EuroBasquek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailarekin batera Francisco Javier de Landaburu PRIMUS marrazki-saria sortzea erabaki zuen 2007an.

Deialdiak hiru sari biltzen ditu, eta urtero ezartzen da.

2. Helburua

Ekimen honen helburua belaunaldi gazteenek Europar Batasuna ezagutzeko ilusioa piztea da, bertan 450 milioi pertsonak partekatzen duten bake, askatasun, demokrazia, aurrerapen ekonomiko eta elkartasun proiektu zirrarragarria ezagutzeko.

Nola egingo dugu hori?

Maiatzaren 9an, Europaren Eguna ospatuz eta marrazki bat eginez.

3. Gai

Galderari erantzungo dion marrazki bat egitea.

Zer da Europa zuretzat?



4. Aurkezteko epea

2025eko maiatzaren 20a:

Lanak aurkezteko epearen amaiera.





XIX. FRANCISCO JAVIER LANDABURU MARRAZKI SARIA PRIMUS 2025 · OINARRIAK

5. Nork har dezake parte?

- Euskal Autonomia Erkidegoko Ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. zikloko ikasleak.

- ⌘ A KATEGORIA: Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailak
- ⌘ B KATEGORIA: Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak
- ⌘ C KATEGORIA: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak

Ikastetxe bakoitzak parte-hartzaile kopuru mugagabea izan dezake.

Aukera gutxien dituzten ikasleak parte hartzera animatuko dira, inklusioa, ekitatea eta sarbide- eta aukera-berdintasuna sustatuz.

Ezin izango du parte hartu aurreko edizioetako batean Francisco Javier de Landaburu Primus sarietako bat lortu duen inork. Halaber, ezingo dute parte hartu Sariaren aurreko bi edizioetan finalista geratu direnak. Ikastetxe bakoitzak parte-hartzaile kopuru mugagabea izan dezake.

6. Zer aurkeztu behar da?

Parte hartzen duten ikasle guztiek marrazki edo pintura bat egin beharko dute, izenburu edo mezu batekin batera, galdera honi erantzuteko:

Zer da Europa zuretzat?

Marrazkiari buruz:

- ⌘ Marrazkian ezingo da sartu ikastetxearen, parte-hartzailearen edo lurralde historikoaren erreferentziarik.
- ⌘ Paperean edo kartoi mehez egin beharko da, eta gehieneko neurriak ez dira DIN A-4 baino handiagoak izango.
- ⌘ Edozein prozedura eta material erabil daiteke, hala nola akuarela, olio, koloretako arkatzak, argizaria, pastela, etab.
- ⌘ Koloretan edo zuri-beltzean izan daiteke.

Nola izapidetu izen-ematea?

Online izena emateko fitxa bete, marrazkien argazkiak erantsita.

Behin marraziak eginda, irakasleak marrazki multzokatuen argazkiak igoko ditu (.jpg edo gif formatua, 2mb-ko gehieneko pisuarekin), ikastetxearen, irakaslearen eta erregistro-formularioan parte hartzen duten haurren datuekin fitxa batekin batera

PARTE-HARTU



XIX.FRANCISCO JAVIER LANDABURU MARRAZKI SARIA PRIMUS 2025 · OINARRIAK



7. Lanen eta sarien balorazioa

Primus Sariko epaimahikideak hauek izango dira:

- EuroBasqueko presidentea, edo Zuzendaritza Batzordeko kideen artean hark aukeratzen duena.
- EuroBasqueko idazkari nagusia.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko bi kide, edota Sailak izendatutako bi pertsona.
- Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko bateko irakasle bat.
- Bilboko Arte Ederren Museoa ordezkari bat.

Epaimahaiak 2025ko ekainean jakinaraziko du bere ebazpena jendaurrean.

Deialdia hutsik utz daiteke, erabat edo zati batean. Epaimahaiak sariari buruz edozein erabaki hartzeko, bertaratutako kideen gehiengo horren alde agertu beharko da. Berdinketarik izanez gero, EuroBasqueko presidentearen kalitate botoak erabakiko du.

Balorazio-irizpideak

1. SORMENA. Epaimahaiak lanaren originaltasuna eta irudikapen grafikoa hartuko ditu kontuan.

2. MEZUA. Lana egokitzea Europako balioak transmititzeko, gizarte inklusiboago bat lortzearen garrantzia balioesteko.

Kopiatutako marrazkiek, kalkatuek edo helduaren eskua ikusten den tokiek ezin izango dute lehiaketan parte hartu. Ezta amaitu gabe dauden marrazkiak, eskatutako informazio osoa ez dutenak edo deialdi honetan adierazitako neurrietatik ateratzen direnak ere.

LANAK HAUTATZEA.

Finalisten hautaketa:

Aurkeztutako proiektuen artean, parte hartzeko irizpideak eta Sariaren legezko oinarriak betetzen dituzten kategoria bakoitzeko 6 lan onenen aurre-hautaketa egingo da epaimahaiaren bitartez.

Irabazleak aukeratzea:

18 lanen artean, kategoria bakoitzeko lan irabazle bat aukeratuko du epaimahaiak:



XIX. FRANCISCO JAVIER LANDABURU MARRAZKI SARIA PRIMUS 2025 · OINARRIAK



Haur irabazleek eta finalistek margo maleta bat eta diploma bat jasoko dute. Irabazleek gainera, oparitxoak jasoko dute.


Lan irabazleen irakasleek 300,00 € jasoko dituzte. Kopuru horri zerga-xedapenen arabera aplikagarriak diren atxikipenak egingo zaizkio.

Kategoria bakoitzeko sariaz gain, epaimahaiak aipamen bereziak eman ahal izango dizkie bere ustez modu berezian nabarmentzen diren lanei.

Lanak sari banaketa egunean antolatuko den erakusketa baten parte izan daitezke.

Publikoaren sari berezia:

18 lan finalistetatik, publikoak EuroBasqueren webgunearen bidez boto gehien jasotzen dituenak, publikoaren sari berezi bat jasoko du, baita margo maleta bat eta diploma bat ere. Lanak Sariak banatzeko antolatuko den erakusketa batean parte hartu ahal izango du.



Sariak argitaratzea

- ⌘ Epaimahaiak 2025ko ekainean jakinaraziko du erabakia.
- ⌘ Deialdia hutsik gera daiteke, osorik edo zati batean.
- ⌘ Epaimahaiak sariaren esleipenari buruz erabakitzen badu, bertaratutako kideen gehiengoak bermatu beharko du. Berdinketa gertatuz gero, EuroBasqueko lehendakariaren kalitatezko botoak erabakiko du.
- ⌘ Epaimahaiaren erabakiak eta interpretazioak apelaezinak izango dira.
- ⌘ Ikastaroa amaitu aurretik, hautatutako ikasleek, irabazleek, ikaskideek eta senitartekoei sari-banaketa ekitaldia eta Bilboko BBAA Museora bisita bat izango dute.

XIX. FRANCISCO JAVIER LANDABURU MARRAZKI SARIA PRIMUS 2025 · OINARRIAK



8. Laguntza materialak: Irakaslearentzako gida didaktikoa

Irakasleek gida didaktiko bat izango dute eskuragarri, Sarian saio bateko edo biko jarduera gisa parte hartzeko proposamenak eta Europar Batasunaren alderdi desberdinak (balioak, giza eskubideak, geografia, historia) antolatzeko. Horiek lagungarri izango dira ikasle gazteenen parte-hartzea eta Europako gaia ulertzeko.

Material hori gaian adituak diren irakasleekin lankidetzan landu da, LOMLOE Lege Organikoan eta aplikatu beharreko gainerako araudian jasotako oinarritzko gaitasunen eta funtsezko esukiak jasoz.

Material didaktikoa gaztelaniaz eta euskaraz egongo da eskuragarri, eta EuroBasqueren webgunetik zuzenean jaitsi eta/edo inprimatu ahal izango da.

GIDA DIDAKTIKOA

9. Lehiaketaren oinarriak onartzea

OINARRIAK ONARTZEA.

Francisco Javier Landaburu Primus Sarian parte hartzeak deialdiaren baldintzak onartzea dakar.

JABETZA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEAK

Deialdi honetan parte hartzeak berekin dakar lan irabazleetan parte hartzen duten irakasleek eta ikasleek EuroBasqueri eskusiboki lagatzea, legez ezarritako epean, eta hirugarrenei lagatzeko aukerarekin, erreprodukzio-eskubide guztiak, paperezko euskarrian eta euskarri elektronikoa argitaratzea, finkatzea, konpilatzea, komunikazio publikoa, eraldaketa, edozein bitarteko edo formatutan (Internet eta sare

sozialak barne) banatzea eta, oro har, egindako lanen gaineko ustiapena.

DATUEN BABESA.

Sarian parte hartzeko bildu behar diren datu pertsonalak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (DBLO) ezarritako arauen arabera tratatuko dira.

